



ORDENANTZA 2. ZK

AGURAINGO UDALA

ARABAKO LURRALDEA

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINKO ZERGA ARAUTZEN **DUEN ZERGA ORDENANTZA**

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko foru arauan ezarritakoari jarraituz, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eskatuko du udalak ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak eta ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua.

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

II. ZERGA GAIA

3. artikulua.

Enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea udalerrian izango da zerga gaia, jarduera horiek lokal jakin batean egin edo ez egin eta zergaren tarifetan zehaztuak egon edo ez egon.

Zerga honen ondorioetarako, enpresa-jardueratzat hartuko dira abeltzaintzakoak, izaera independentea dutenean, meatzaritzakoak, industriakoak, merkataritzakoak eta zerbitzuetakoak. Beraz, ez dira halakotzat hartzen nekazaritza-jarduerak, mendeko abeltzaintza-jarduerak, baso-jarduerak eta arrantza-jarduerak, eta ez dira zergapeko egitate.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, segidako kasuotan sartuta dagoen abere multzoa abeltzaintza independentetzat joko da:

- a) Abeltzainak nekazaritzarako edo baso-ustiapenerako erabiltzen ez dituen lurretan batez ere bazkatzen duten abereak.
- b) Landa finketatik kanpo ukuiluratutakoak.
- c) Transhumantea edo trasterminantea.
- d) Hazleku dituzten finketakoak ez diren pentsuez gehienbat elikatzen direnak.



4. artikulua.

1.- Jarduera batek enpresa, lanbide edo arte izaera izango du produkzio bitartekoak eta giza baliabideak (edo bietakoren bat) bere kontura antolatzen dituzenean, ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan parte hartzeko asmoz.

2.- Zergapetutako jardueren edukia zergaren tarifetan zehaztuko da.

5. artikulua.

Zergapetutako jarduerak egiten direla frogatzeko, zuzenbidean onargarria den edozein bitarteko erabiliko da, eta, bereziki, Merkataritza Kodearen 3. artikuluan jasotakoak.

6. artikulua.

Ez da zerga gaia izango honako jarduera hauek egitea:

1.- Nekazaritzakoak, mendeko abeltzaintzakoak, basogintzakoak eta arrantzakoak.

2.- Enpresen aktibo finkean sartzen diren ondasunak besterentzea, ondasun horiek ibilgetu izaeraz gutxienez aldatu baino bi urte lehenagotik agertu badira inbentarioan, eta saltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunak saltzea, ondasun horiek denbora epe berean erabili izan baditu.

3.- Lan pertsonalen edo zerbitzu profesionalen ordainez jasotzen diren produktuak saltzea.

4.- Establezimenduak dekoratu eta apaintzeko baino ez diren gaiak erakustea. Aldiz, zergari lotuko zaio bezeroei oparitzeko gauzak erakustea.

5.-Txikizkako salmentan, egintza bakarra burutzea eta eragiketa bakana izatea.

III. SALBUESPENAK

7. artikulua.

1.- Zergatik salbuetsita daude:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta udal erakundeak, eta estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Zerga honen lehenengo bi zergaldietan jarduera bati ekiten dioten subjektu pasiboak. Honen ondorioetarako, ondoko kasuetan jarduera ez dela hasi pentsatuko da:



- 1) Lehenago beste titulartasun batekin egin bada jarduera; halakotzat hartuko dira bategiteak, zatikatzeak eta jarduera arloak eranstea.
- 2) Subjektu pasiboa Merkataritzako Kodeko 42. artikuluekin bat etorritik eratutako sozietate talde bateko kidea bada; salbu eta jarduera berri bat bada, taldeko ezein enpresak lehenago egin ez duena.
- 3) Erakundearen ehuneko 25 baino gehiago jarduera berean aritu diren enpresen esku badago.

c) Eragiketetan 1.000.000 euro baino gutxiagoko bolumena duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, establezimendu iraunkor bidez aritzen direnentzat baino ez da izango salbuespena, baldin eta eragiketetan 1.000.000 euro baino gutxiagoko bolumena badute.

Nolanahi ere, salbuespen hori aplikatzeko, ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek zuzenean edo zeharka ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetzarik ez izatea idatz-zati honetan aurreikusitako eragiketa-bolumenaren baldintza betetzen ez duten enpresen artean, salbu eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 77. artikuluan aipatzen diren arrisku-kapitaleko sozietate edo funtsen kasuan, partaidetza azken horien helburu soziala betetzearen ondorio denean.

Idatz zati honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko arau hauek hartu behar dira kontuan:

1º. Eragiketen bolumena Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 5. artikuluen 1. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko da.

2º. Eragiketen bolumena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, zerga horien aitortpenak aurkezteko epea zerga hau sortu aurreko urtea amaitua duen zergaldiko eragiketa-bolumena izango da.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluen 3. paragrafoan aipatzen diren sozietate zibilen eta erakundeen kasuan, eragiketa-bolumena zerga hau sortu aurreko azken-aurreko urteari dagokiona izango da.

Zergaldi horrek urte naturala baino iraupen laburragoa izan badu, eragiketen bolumena urtebeterra luzatuko da.



3°. Subjektu pasiboaren eragiketa-bolumena kalkulatzeko, subjektu pasiboak gauzatutako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Erakundea sozietate-talde bateko kide denean, Merkataritza Kodearen 42. artikulua araberak, arestian adierazitako magnitudeak talde horretako erakunde guztiei buruzkoak izango dira.

4°. Ez-egoiliarren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, Espainiako lurraldean kokatutako establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakiokeen eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

d) Gizarte Segurantzak, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritakoak.

e) Ikerketa-erakunde publikoak, irakaskuntza-establezimenduek, beren gradu guztietan, Estatuko, autonomia-erkidegoetako, Arabako Foru Aldundiko edo toki-erakundeetako funtsekin osorik ordainduta, edo ongintzazkotzat edo onura publikokotzat jotako fundazioek ordainduta, eta irakaskuntza-establezimenduek, maila guztietan, baldin eta, irabazi-asmorik gabe, hezkuntza-itunaren araubidean badaude, baita ikasleei liburuak edo mahaigaineko artikuluak ematen badizkiete edo pentsio ertaineko edo barnetegiko zerbitzuak ematen badizkiete ere, eta nahiz eta salbuespen gisa establezimendu berean saltzen dituzten irakaskuntza horretarako tailerretako produktuak, baldin eta salmenta horren zenbatekoa, partikular edo hirugarren pertsona batentzat inolako baliagarritasunik gabe, lehengaiak eskuratzeko edo establezimenduari eusteko soilik erabiltzen bada.

f) Ezindu fisiko, psikiko eta sensorialen elkarte eta fundazioek, irabazteko asmorik gabeek, ezinduak irakatsi, hezi, birgaitu eta zaintzeko burutzen dituzten pedagogia, zientzia, asistentzia eta enplegu jarduerak direla eta, nahiz eta horretara egokitutako tailerretako produktuak saldu, baldin eta salmenta horren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea) eskusiboki lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua mantentzeko bideratzen bada.

g) Gurutze Gorriaren eta arauz zehaztutako diren antzeko erakundeen ondasunak.

h) Salbuespena aplikatu dakiekeen subjektu pasiboak, nazioarteko itunei edo hitzarmenei jarraikiz.

2. Aurreko paragrafoaren a), e), eta h) idatz zatietan zehaztutako subjektu pasiboek ez dute Zergaren matrikulako alta aitortzea aurkezteko beharrik.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak zehaztutako du zein kasutan eskatutako den Arabako Foru Aldundiari zuzendutako komunikazio bat, 1. paragrafoaren c) letran



zehaztutako salbuespena aplikatzean; komunikazio horretan, ziurtatu egin beharko da salbuespena aplikatzeko letra horretan eskatzen diren baldintzak betetzen direla.

Ondorio horietarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ezarriko ditu komunikazio horren edukia, epea eta aurkezpen modua, baita bide telematikoz aurkeztu beharko diren kasuak ere.

Artikulu honen 1. paragrafoaren c) letran zehaztutako salbuespenari eragin diezaioketen aldakuntzez ari garela, zerga ordenantza honetako 11. artikulua 2. paragrafoko hirugarren lerroaldean zehaztutakoa jarraituko da.

4. Artikulu honen 1. paragrafoaren f) eta g) idatz zatietan xedatutako salbuespenek erregu izaera izango dute eta, hala dagokionean, alde batek eskatuta emango dira.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

8. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira bai pertsona fisikoak eta juridikoak, bai Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. paragrafoak aipatzen dituen erakundeak, udalerrian zerga gaia eratzten duten jardueretako edozein egiten badute.

9. artikulua.

Zerga kuota indarrean dauden zergaren tarifak (uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onartuak) aplikatuta lortzen dena izango da, betiere ondokoak kontuan hartuta: udalak adostutako eta ordenantza honen eranskinean araututako koefizienteak, indizea eta hobariak.

V. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

10. artikulua.

1.- Zergaldia urte naturalarekin bat dator, alta aitortpenak direnean izan ezik; horrelakoetan, zergaldiaren jarduera hasi denetik urtea bukatu artekoa izango da. Horrek ez du eragotziko artikulu honen 3. paragrafoan xedatutakoa ezartzea.

2.- Zerga sortuko da zergaldiaren lehen egunean eta kuotak murriztezinak izango dira, salbu eta alta-aitortpenen kasuetan, jarduera hasten deneko eguna urtearekin bat ez datorrenean; horrelakoetan, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31ra bitarteko egun kopuruaren arabera proportzionalki kalkulatu da.

3.- Baja aitortpenen kasuetan, zergaldia urtarrilaren batetik baja aitortpena aurkezten den egunera artekoa izango da. Horrelakoetan, zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga,



eta kuota proporzionalki kalkulatu da, hau da, urtarilaren batetik baja aitortzen den egunera arte dauden hileen arabera.

Aurreko lehen aldian aipatutako hilabeteen kopurua kalkulatzeko, baja aitortzen den hilabete osoa balitz bezala zenbatuko da.

Paragrafo honetan xedatutakoa ez da aplikatu, baldin eta ez badira igaro 12 hilabete jardura hasten den egunetik baja aitortzen den eguna arte. Horrelakoetan, baja aitortzen den urteko abenduaren 31ra pasatuko da baja eguna.

4.- Ikuskizunei dagokienez, kuota saio bakanen arabera ezarritakoak direnean, sortzapena saio bakoitzeko sortuko da, eta egoki diren aitortzen den beharko dira arauak ezarritakoa erari jarraiki.

VI. KUDEAKETA

11. artikulua.

1.- Zerga matrikularen arabera kudeatzen da. Matrikula hori urtero osatuko da, eta jardura ekonomikoak, subjektu pasiboak, zerga-zorrak eta, hala badagokio, foru-errekargua biltzen dituzten erroldak osatuko dute. Matrikula jendearen eskura egongo da.

2.- Subjektu pasiboak dagozkien alta aitortzen guztiak aurkeztu behar dituzte, eta zerga ordenantza honetako 11.1 artikuluari jarraikiz, erroldan sartzeko beharrezko diren elementu guztiak adierazi beharko dituzte, arauak ezartzen den epean. Jarraian, eskumena duen administrazioak dagokion likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, eta horrek, dagokion diru sarrera egin beharko du. Halaber, subjektu pasiboak zergapetutako jarduerak gauzatzen sortuko diren eta zerga honen ondorioetarako garrantzia izango duten aldaketa fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak jakinarazi beharko dituzte arau bidez ezarritako diren epe eta terminoetan. Horiek horrela, jakinarazpen horietan nahitaez adierazi beharko da jarduerak gauzatzen diren higiezin katastroko erreferentzia.

Zehazki, zerga ordenantza honen 7. artikularen 1. paragrafoaren c) idatz zatian zehaztutako salbuespena aplikatu ezin zaien zergadunek eragiketa bolumena adierazi beharko diote Arabako Foru Aldundiari. Era berean, subjektu pasiboak eragiketa bolumenean izandako aldakuntzen berri eman beharko dute, baldin aldakuntza horrek berarekin badakar zerga ordenantza honen 7. artikularen 1. paragrafoaren c) idatz zatian zehaztutako salbuespena aplikatzearen edo ez aplikatzearen aldaketa, nahiz zerga ordenantza honetako eranskinean zehaztutako haztapen koefizientea aplikatzearen ondorioetarako kontuan izan beharreko zatiko aldaketa.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ezarritako komunikazio horiek aurkeztu behar diren kasuak, haien edukia, epea eta aurkezteko modua, bai eta bide telematikoz noiz aurkeztu behar diren ere.

3.- Zerga-ikuskaritza jarduketan edo altak eta komunikazioak formalizatzearen



ondorioz zentsuetan jasotako datuak sartzea, baztertzea edo aldatzea administrazio-egintzatzat hartuko da, eta zentsua aldatzea ekarriko du. Erroldako datuei buruzko edozein matrikula-aldaketa egiteko, ezinbestekoa izango da erroldako datuak aldatzea.

4.- Zerga hau autolikidazioaren bidez egiteko eskatu ahal izango da, arauz ezartzen diren baldintzetan.

12. artikulua.

1.- Udal honek ditu kudeaketa, likidazio, ikuskatze eta bilketa ahalmenak, bai araututako epean, bai premiamendu bidean.

2.- Bere eskumeneko gaitan, honako hauek dagozkie: matrikula jendaurrean jartzea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea eta zergadunari zerga honen gaiei buruzko informazioa emateko jarduerak.

3.- Arabako Foru Aldundiari bakarrik dagokio matrikula osatu eta gordetzea, jarduera ekonomikoak kalifikatzea, kuotak zehaztea eta dagozkion kobrantza-ordainagiriak egitea.

4.- Udal hau Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan arituko da zergaren matrikula osatu eta kontserbatzeko, bai eta jarduera ekonomikoak kalifikatzeko eta dagozkion kuotak zehazteko ere.

5.- Salbuespenak eta hobariak emateko edo ukatzeko, foru aldundiari eman beharko zaio hartutako erabakiaren berri.

13. artikulua.

Jardueren kalifikazioen eta kuoten zehaztapenaren aurka aurkeztutako errekurtsio eta erreklamazioak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 229. artikulutik 246. artikulura bitartekoetan xedatutakoari jarraiki arautuko dira, eta Arabako Foru Aldundia izango da errekurtsioa ebazteko organo eskuduna. Erreklamazio horiek aurkezteak ez du egintzen betearazpena eragotziko.

14. artikulua.

1.- Udal bakoitzari dagozkion matrikulak foru aldundiak egingo ditu eta ondoren haiei bidaliko dizkie.

2.- Foru Aldundiak egindako matrikula jasotako bat jendaurrean jarriko da hamabost eguneko epean, eragindako zergadunek aztertu eta, hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

15. artikulua.

Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio emaitzaren egiaztatzea, hark onar dezan.

Onartu eta gero, Arabako Foru Aldundiak egingo ditu bakoitzari dagozkion ordainagiriak, eta udalari bidaliko dizkie, azken horrek diru-bilketari ekin diezaion.



XEDAPEN IRAGANKORRA

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasiboei dagokienez, uztailaren 23ko 573/1991 Foru Dekretu Arauemaileak onartutako tarifen lehen ohar komunean Bigarren Atalari lehen oharrean araututako jarduera hasteagatiko kuotan hobaria aplikatzen ari badira, hobari hori aplikatzen jarraituko da, ohar erkide horretan aurreikusitako baldintzetan, hobaria aplikatzeko dagokion aldia amaitu arte.



JARDUERA EKONOMIKOEN GAINKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

ERANSKINA

Lehen araua.

Udalaren gutxieneko zerga kuota, indarrean dagoen uztailearen 23ko Diputatuen Kontseiluaren 573/1991 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutako Zergaren Tarifak – Ordenantza honetan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura osatzen eta garatzen duten xedapenetan jasotako manuen arabera – eta Ordenantza Fiskal honetan araututako koefiziente, indize eta hobariak Zergapeko Egitatean sartutako jarduerari aplikatzearen emaitza izango da.

Bigarren araua. Eragiketa bolumenaren arabera zehaztutako haztapen koefizientea

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 9.1 artikulua kontuan hartuta, Aguraingo Udalak ez du igoko zergaren tarifetan adierazitako gutxieneko udal kuota, subjektu pasiboen eragiketa bolumenaren arabeko haztapen koefizienteren bat aplikatuta.

Hirugarren araua

Foru Arauaren 9.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, udalerrri horretan egiten diren jarduera guztietarako, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifen gutxieneko kuotak igo egingo dira, jarduera horiei 1,69 koefizientea aplikatuz.

Laugarren araua. Indizeak

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 10. artikulua kontuan hartuta, Aguraingo Udalak ez du indizerik ezartzen subjektu pasiboak jarduera ekonomikoa egiten duen bide publikoaren kategoria fiskalaren arabera.

Bosgarren araua. Hobariak.

Foru Arauaren 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, zergaren kuotan hobariak aplikatuko dira, eta subjektu pasibo beraren alde batera aplika daitezke. Hona hobari horiek:

1. Kooperatiba babestuek, hala eskatzen badute, ondoren adieraziko diren ehunekoak izango dituzte hobari zergaren kuotan, Arabako Foru Aldundiak horren aldeko txostena egiten duen bakoitzean:

- Zerga kuotaren ehuneko 50eko hobaria, lehen urtean.
- Zerga kuotaren ehuneko 75eko hobaria, bigarren urtean.
- Zerga kuotaren ehuneko 95eko hobaria, hirugarren eta azken urtean.



2. Udal kuotako zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboek ehuneko 10eko hobaria izango dute, baldin eta hobaria aplikatzekoa den zergaldiaren aurre-aurreko zergaldian kontratu mugagabeko langileen batez bestekoa ehuneko 10ean handitu badute, zergaldi haren aurrekoaren aldean.

Enplegua sortzeagatiko hobari hori ehuneko 25ekoa izango da, aurreko lerroaldean aipatutako batez bestekoaren igoera ehuneko 20 edo handiagoa denean.

3. Dagokion kuotaren 100eko 10eko hobaria izango dute zergak udal-kuotagatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboek, baldin eta beren langileentzat garraio-plan bat ezartzen badute, eta plan horren helburua honako hau bada: energiaren kontsumoa eta lanpostura joateak eragindako emisioak murriztea eta garraiobide eraginkorragoen erabilera sustatzea, hala nola garraio kolektiboa edo partekatua.

Seigarren araua.

Diru-bilketako aldia: ordainketa bakarra egingo da, irailean.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala, zeinaren zati baita Eranskin hau, azken aldaketaren ondoren, behin betiko onartu zen 2023ko azaroaren 22an, eta ALHAOn argitaratu ondoren sartu zen indarrean.